

Ikasturte hasiera

–Baina, baina... Hau dena erosi behar al duzu?

–Bada, ez dakit, ama...

–Bueno, bueno, agenda... Zer zara, ministroa, ala? Zertarako behar duzu zuk agenda bat?

–Ama, eginbeharrak apuntatzeko behar dut. Lan asko egin behar ditut eskolan...

–Eta hainbeste koaderno...! Ez al daukazu ordenagailurik lanak egiteko?

–Bai, ama, baina apunteak eskuz hartzeko koadernoak behar ditut.

–Tira, tira...eta koloretako boligrafoak eta markatzaileak? Ez al da nahikoa boligrafo batekin?

–Ama, koloretako boligrafoak eskemak egiteko behar ditut, eta markatzaileak informazio garrantzitsua azpimarratzeko.

–Ondo dago... Eta post-itak? Zer dira horiek?

–Bada, paper itsasgarriak dira. Txikiak liburuetan informazioa non dagoen markatzeko erabiltzen dira, eta handiak ohar garrantzitsuak idazteko.

–Eta, gainera, estutxea, grapagailua... Aixxx, gazte hauek! Gure garaian ez geneukan hainbeste tontakeria!

–Ez hasi txaparekin, ama!

–Aizu, baina, ezer erosi aurretik, begiratu zer daukazun etxean, e! Ez dugu dirua alferrik gastatuko!